

SANTIAGO AIZARNA-ri bereak itzultzen

Santiago:

Gabriel Aresti zenak idatzitakoa dudan jartzen ez baduzu ere eta hildakoarentzat hitzik esan nahi ez, argitasunerako hara hor bere letra. Inork ez dezan pentsa nik ezer asmatu dutanik.

Bilbaon, 1968. Abenduak 16.

Juan San Martin

Ubarrena

Ure lagun maitea:

Ure hantu diat. Barka zake lehenago ure oler-bilduma bidali egin baderauat. Zonekin batean doazik.

Aste alaitzen nauk, hortik, estranjeriatik, euskal poesia hedatzeko zibilizazioa auzinak gatik. Uala eta guztiz ere, eta e modestiazatik, ure gant e diat hortik nahasturik ikuri nahi. Badukadan gauzarik maiteena duk eta Poesia Iliopane-rako egin dituen selezioarekin e nategok konfor- me. Work bere poeta-kideak hautatzeko eskulde aso diki, eta ate falsotik ortu du horuekin e diat oleritzko har-umanik yan nahi. Mesedez atziki derauek aguilas-koei hortik ure yena eengzeko. Ua K. Zeterin lagertzearekin ere e nategok ador. Mesedez "Si la pildora..."-tik ere lagertzearekin udhi nuke. Igenon deraudak mesedea?

Nere aldetik ez bai nuen inolazko iritzirik agertu zure poemaren kontra; bai ordea gure artean poeziagintzan agertzearen poza. Euskal idazleonean artean ez baita inor sobra. Antologia hartarako zer bide erabili zenuen, neri bost axola. G. Arestik bere *Antologia laburra* igortzean bidali zidan gutunean jartzen zuena transkribatu eta adierazi baizik ez nuen egin *Egan*-en. Ez zenik edo bestelakorik ez nuen jarri. Gezurra onartu nuela? Hark bere iritzia izango zituen, baina nik ez nion eman inolazko onezpenik. Zerorren gaizki ulertze bat ez ote? Asmakizunen bat ez bada behintzat. (Ikus *Egan*, 1982, 16. orr.).

Hori horrela delarik, ez irainik eta ez laudoriorik ez dut zertan jaso. Bestela, nereaz ez dena jasotzeaz zordun nintzake. Eta, zorretan gelditu ez nadin, zureak zeuri igortzen dizkitzut. Tori:

«Ate paltsotik ibiltzen dena zu izango zarela eta petralkeriak esaten dituana ere bai; ... Pozoi-ontzi ttiki bat besterik ez ba zera jakingo dezu noski nun ustua bear dituzun zure ur-zikiñ oiek iñor maxiatzera etorri gabe».

Eta abar. Zikinkeriok erori zaizkitzu eta zureak direnez zerorri itzultzen dizkitzut.

Juan SAN MARTIN